

Donostian, mila bederatzireun eta berrogetamargarren urteko Lotazilaren ogetabederatzian, Ekauta-jauregian, Elissalde jauna maipuru dala, ta Etxaide, Irigarai, Krutwig, Lafitte, Dassance ta Oleaga Euskaltzainak baturik, egiten da il oneri dago-kon Euskaltzaindiaren batzarra.

Araudizko otoitza asi eta gero, lenagoko lau batzar-agiriak irakurri dira, ta aobatez onetsi dira.

Etxegarai jaunaren idazki bat irakurten da. Aspaldian makal dabilala, ta ori dala-ta batzarretara ezin erdu izan dala, diño. Orregaitino, eskuartean euskal-lana batzuk darabilzala, batez-bere argin Kantabriarrak, Asturietañak, Galziarrak eta Portugaldarrak, Asturiasko telegin eta perzkileak, Mondarizko zaragileak, eta Cantalejos (Segobia)ko eskuare, bae ta galbaeginak erabilten dabezan euskal itzak azter-tzen, eta guzti orren barri laster ekarriko dabela Euskaltzaindira, bere badino.

Urrengo, adierazoren da Urkijo euskaltzain bikain-bikainaren eriotzea. Atsekabe andia ta sakona artzen dau Euskaltzaindiak barri itun onegaz eta onan ager-erazo daitela erabagi da. Ildakoen alargunari bere, jakin erazo bekio.

Gero, Etxaide euskaltzaina Euskaltzainburu ordekotzat izentau da.

Gipuzkoako Aurrezki-kutxak, mila laurleko Euskaltzaindi oneri emon dautsaz-eta, eskerrak emon dakiozala ebatzi da.

Azkue, Krutwig, Seminario ta Lekuona euskaltzainen idazki bat irakurten da. Gorostigatar Joanes euskaltzain-urgazlearen gorapenak egin ondoren, Zamarripa jaunak utzi daben euskaltzain-utsa beronegaz bete bear litakela dinoe. Onan ebatzi da aobatez.

Krutwig jaunak diño Agerre urgazlea Intza euskaltzainaren ordeko izantau bear litakela. Gai onezaz oar batzuk egin dira ta geroagokoan erabagiteko utzi da.

Urrengo Krutwig jaunak irakurri dau "El aspecto del verbo vasco" deritxon lantxo bat. Pozik entzun da.

Azkenez, Irigarai jaunak diño Gipuzkoako Ekautari, Euskaltzaindi oneri, batzarrak egiteko ta beste bere bear izanetarako, toki edo gela berezi ta egoki bat emon dakiola eskatu bear litzakiola. Onantxe ebatzi da.

Eta beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

*Zadorlaria*  
Nazario Oleaga